

Gure baserriar zaharren beharrak zamalbiden

Garbiñe Irazu

2008ko martxoan Errenteriako Udalak, Behemendi Landa-Garapenerako Elkarteak, INEMek eta Oarsoaldea Eskualdearen Garapenerako Agentziak bultzaturiko "Errenteriako landa eremuko adinekoek dituzten beharren inguruko azterketa" izeneko lana bukatu zen.

Horretarako, Udal Mendi eta Ingurumen Sailak eta Gizarte Zerbitzuak lankidetzan aritu dira. Helburua izan da landa eremuan erroldatutako hirugarren adineko biztanleek bizitza kalitateari buruz duten pertzepzioa aztertzea, dituzten beharrei erantzun eraginkorra emateko asmoz.

Lan honen bidez Errenteriako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planean (2006-2010) jasota dauden hainbat ekimen abiarazi dira, arreta berezia jarriz A1.3.12 Ekintzan: "Landa eremuan beharrak antzematuko sistema diseinatzeari garrantzia ematea", Lehen Sektorea sustatzeko Programa garatuz.

Horrela, azterketa egiteko, udalerriko landagunean bizi diren 65 urtetik gorako 107 pertsonetatik 96ri egin zaie elkarrizketa, landa eremuaren inguruko hainbat alderdiri buruz galdetuta:

Aztertutako gaiak

- | |
|--|
| 1. Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuen ezagutza maila eta erabilera |
| 2. Hiritarren sektore honen familia eta gizarte harremanak |
| 3. Baserriaren egoera eta irisgarritasuna |
| 4. Osasun egoera, gaixotasun kronikoak eta mugikortasun murriztua edo ez |
| 5. Pentsio erregimena eta diru-sarrera maila |
| 6. Mugikortasunerako aukerak (sendagilea, gestioak, erosketak,...) |
| 7. Garraio publikora edo beste udal zerbitzu batzuetara iristea |
| 8. Familia eta gizarte ingurunea |

Baserriar adinduen egoera

Azterketaren emaitzak

1. Elkarrizketatuen ia %80 baserrian bizi da senitartekoren batekin, eta soilik %4,86k ez du inolako harremanik familiarekin, familiarik ez izateagatik edo izanez gero urruti bizi delako.
2. Gaur egun, baserri guztien %22,47k soilik dute etxebizitza berritzeko beharra. Hala ere, kopuru hori %41era igotzen da kontuan

hartzen badugu horietako askotan egitura berritua badago ere, oraindik adineko pertsonen arazoa sortzen dieten egoerak ematen direla (eskailera altuak, ate estuak, egokitu gabeko komunak,...)

3. Elkarrizketatuen %72,09k gaixotasun kroniko motaren bat du (hipertentsioa, diabetea, mugitzeko zailtasunak, Alzheimer,...).
4. %14k ez du inolako diru-laguntzarik jasotzen (erregimen orokorreko pensioa, nekazaritza erregimenekoa, alargun pensioa,...).

5. Gizonezko gehienek (%75,59) ez dute garraio publikoa erabiltzen. Emakumeen kasuan, ordea, kopuru hori %56,37ra jaisten da.
6. Mantentzen diren gizarte harreman gehienak, kasuen %92,14an familia artekoak izaten dira. Harreman horiek, gainera, ohikoak dira.
7. 65 urtetik gorako pertsonen %51,64k ez dute udal gizarte zerbitzuen berri, eta %44,44k, ordea, bazuen nolabaiteko erreferentzia, telealarma eta etxez-etxeko laguntza zerbitzuen ingurukoa, esaterako.

Azterketa honen bidez, lehen aldiz Errenteriako landa-gunearen adinduen egoera zein den jakin ahal izan da, populazioaren adin-tarte honi gizarte-zerbitzuak eta udal politikak modu zuzenago batetan iritsi ahal izateko. Azken finean, landa-garapeneren beste elementu bat besterik ez da. Izan ere, udal kudeaketaren ikuspegitik oraindik beste programa batzuk irekitzen joan behar dira: ekoizpena eta salmenta zuzenaren bultzada, nekazal ekoizpenerako lurren babes eraginkorra,...



Autobus Zerbitzu berria abiatu da Errenteriako landalurreko adinduentzat